


ARRAUTZA KAXEZ EGINIKO MASKARAK


- Beharrezko materiala:
 - Arrautza kaxa bat.
 - Kolore ezberdinetako tenperak.
 - Pintzelak.
 - Tenperaz beteko ditugun ontziak, jogur potoak adibidez.
 - Guraizeak.
 - Goma edo haria.
 - Egunkariak edo aldizkariak.



1. Lehendabizi, maskara egiteko beharko dugun material guztia prestatuko dugu. Horretarako:
 - Maskarak egingo ditugun mahaia egunkari edo aldizkari paperez estaliko dugu ez zikintzeko.
 - Jogur poto bakoitzean dagokion koloreko tenpera isuriko dugu eta pintzel bat sartuko dugu bertan.
2. Ondoren, arrautza kaxa mozten hasiko ginateke maskara egiteko.
 - Lehenengo kaxaren mutur batetik hasita dauden 4 sakonuneak barne hartzen dituen karratua moztuko dugu (irudian ikusten den bezala).




- Jarraian, 4 sakonuneek osaturiko karratuari, hiru- eta laugarren sakonuneak moztuko dizkiogu; honela, egin nahi dugun maskararen forma lortuz (ikusi irudia).



- Ondoren, maskarari begiak egingo dizkiogu. Horretarako, arrautza kaxaren lehenengo eta bigarren sakonuneak erdialdetik zulatuko ditugu guraizekin.



3. Jada arrautza kaxari maskara forma eman diogunean, tenperez baliaturik, norberak nahi duen koloreekin margotuko du.



4. Jarraian, beharrezkoa da, tenpera sekatzeko uztea.
5. Maskara erabat lehortu denean, haria edo goma jarriko diogu.
Horretarako:

- Maskararen bi aldeak zulatuko ditugu.



- Haria edo goma zati bat moztu ondoren, haria maskararen alde batean eginiko zulotik pasa eta korapilo bat egingo dugu.



- Alde bateko korapiloa eginik dagoenean, kontrako hari muturra falta den zulotik pasako dugu. Behin hari muturra zulotik pasa dugunean, norberak behar duen beste tirako dio bere buru tamainara egokitu dadin, eta beste aldean egin dugun bezala korapilo bat egingo dugu gure lana bukatutzat emanik.

